

2004ko IRAILAren 14ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta lauko irailaren hamalauan, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- LOPD

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoaren (DPBL), 20. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Publikoek fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dituzte Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion probintziako aldizkari ofizialean xedapen orokorra argitaratuz. Halaber, DBPL legearen lehen xedapen gehiagarriak fitxategien arduradun diren Administrazio Publikoetara agintzen die fitxategiak sortzeko xedapena onartzeko edo onartuta dituztenak Legeak ezarritakoen arabera egokitzeko.

Hori dela eta, Udal Batzarrak, honakoa erabaki du, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua xedatzen duenari jarraiki:

Lehena.- Udaleko Izaera Pertsonaleko datuak dituzten fitxategien sorrera eta hauek babesteko egindako Seguritateko Dokumentua onartzea.

Bigarrena.- Eranskinetako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea.

Hirugarrena.- Erabakia eta eranskinak oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikulua betetzeko.

Laugarrena.- Datuen Babeserako Agentziari eranskinen edukia jakinaraztea.

I. ERANSKINA
SORTUTAKO FITXATEGIAK

Fitxeroaren Izena:	GEIZ PROGRAMAKO MUGIMENDUAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Pertsona fisiko naiz juridikoek egindako izaera ekonomikoa duten operazioen kokapena eta kudeaketa		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	"Hirugarren" izenpeko pertsonak (hornitzaileak, laguntza eskatzaileak, konkurtsoetako partaideak, tasa eta zerga zordunak, etabar). Hau da, Udalarekin izaera ekonomikoko harremana duten pertsona fisiko naiz juridikoak.		
Datuen Etorkia:	Udaleko Erregistro Orokorrean sarrera duten, Interesdunen Komunikazioak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Eskuz.		
Datuak Lortzeko Erabilitako Soportea:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Pertsona Identifikatzeak:		
	Operazioaren Datua (fasea, mota, zenbatekoa, epeak).		
	Kontabilizazio Datuak:		
	Operazioen Datak:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	GEIZ PROGRAMAKO HIRUGARRENAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Pertsona fisiko naiz juridikoez egindako izaera ekonomikoa duten operazioen kokapena eta kudeaketa		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	"Hirugarren" izenpeko pertsonak (hornitzaileak, laguntza eskatzaileak, konkurtsoetako partaideak, tasa eta zerga zordunak, etabar). Hau da, Udalarekin izaera ekonomikoko harremana duten pertsona fisiko naiz juridikoak.		
Datuen Etorria:	Interesdunen Komunikazioa. Epaitegiak, Gizarte Segurantza eta beste Administrazioen Komunikazioak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Adierazpenak edo Formularioak.		
Datuak Lortzeko Erabilitako Soportea:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea.		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Pertsona Identifikatzeak:		
	Endosuko Datuak:		
	Hirugarrenen Banketxeko Datuak:		
	Operazioen Datak:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala		
Segurtasun Neurrien Maila:	Oinarrizkoa.		

Fitxeroaren Izena:	IHARDUERA EKONOMIKOAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Kudeaketa eta Kontrol Fiskala. Erroldaren tratamendu estadistikoa.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Zergapeko Iharduera Enpresariala, Profesionala edo Artistikoa duten Pertsona fisiko naiz juridikoak.		
Datuen Etorkia:	Araudi fiskalak eragindakoak aurkezturiko adierazpenak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galde sorta.		
Lortzeko erabiltzen den euskarria:	Paperezko Euskarria.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Subjektu pasiboaren identifikazio datuak:		
	Egin dituen iharduerak: Epigrafeak:		
	Kuota:		
	Ihardueraren Xehetasunak:		
	Adierazpeneko bestelako datuak:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	LANDALUR IZAERA DUTEN ONDASUN HIGIEZINAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Landalur izaera duten ondasunen kudeaketa eta kontrol fiskala.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Landalur izaera duten ondasunen jabeak.		
Datuen Etorkia:	Araudi fiskalak eragindakoak aurkezturiko adierazpenak. Udalaren ebazpenak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Eragindakoek, paperez, euskarri magnetikoan edo telematika bidea, aurkezturiko adierazpenak. Landalur Katrastroko informazioa.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Bilketa prozeduraren arabera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Titularra eta Helbidea:		
	Ondasunaren Xehetasuna (Poligonoa, Partzela ...)		
	Landaketa Mota:		
	Azalera, Balioa:		
	Banketxeko Datuak eta besteak:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	HIRILUR IZAERA DUTEN ONDASUN HIGIEZINAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Hirilur izaera duten ondasunen kudeaketa eta kontrol fiskala.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Hirilur izaera duten ondasunen jabeak, usufruktu eta azalera eskubide errealak dituzten titularrak eta administrazio-emakida duten titularrak.		
Datuen Etorkia:	Araudi fiskalak eragindakoak aurkezturiko adierazpenak. Hirilur Katastroko informazioa.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Eragindakoek, paperez, euskarri magnetikoan edo telematika bidea, aurkezturiko adierazpenak. Hirilur Katastroko informazioa.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Bilketa prozeduraren arabera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Titularra eta Helbidea:		
	Ondasunaren Xehetasuna:		
	Koefizientea:		
	Erabilerak:		
	Balio Katastrala:		
	Banketxeko Datuak:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	TASA ETA ZERGEN KUDEAKETA		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Udal tasa, zerga eta zeharkako sarrerak emititu eta kobratzeko sostengu informatikoa ematea.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Udalarekin harremana duten pertsona fisikoa naiz juridikoak.		
Datuen Etorkia:	Interesduna edo ordezkari legala. Administrazio Publikoak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Adierazpenak edo Formularioak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	N.A.N /I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea (Postala, Elektronikoa)		
	Telefonoa.		
	Banketxeko Datuak:		
Datu-Uztea:	Errezihoak kobratzen dituzten banketxe laguntzaileak.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	LANSARIAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Udal langileen nominak egitea. Banku Etxeei egin behar dituzten ordainketak jakineraztea. Gizarte Segurantzza, Hazienda Forala eta Elkarkidetzari horren berri ematea.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Udal Langileak.		
Datuen Etorkia:	Interesatua bera eta legeriak zehaztutakoak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketa, Formularioak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	N.A.N./I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea:		
	Telefonoa:		
	Jaioteguna eta Jaioterria:		
	Gizarte Seguran-tzako Kodea:		
	Banku Datuak:		
	Soldatak:		
Datu-Uztea:	Banku Etxe, Gizarte Segurantzza, Hazienda Foral, Elkarkidetzari, Aseguru Etxeak		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

Fitxeroaren Izena:	HILERRIA		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Hilerriaren Kudeaketa.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Hilerrian Lurperatuak.		
Datuen Etorkia:	Interesatua bera, Senitartekoak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	N.A.N./I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea:		
	Telefonoa:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala		
Segurtasun Neurrien Maila:	Oinarrizkoa.		

Fitxeroaren Izena:	BIZTANLEEN UDAL ERROLDA		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Udalak derigorrez egin behar duen Biztanleen Udal Erroldari euskarri informatikoa ematea.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Udalerrian bizi diren guztiak.		
Datuen Etorkia:	Interesatuak berak edo bere ordezkari legalak emandakoak. Herri Administrazioek emandakoak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketa, Formularioak, Inkesta eta Elkarrizketak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	N.A.N./I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea:		
	Telefonoa:		
	Jaioterria:		
	Jaioteguna:		
	Sexoa:		
	Nazionalitatea:		
	Ama Hizkuntza:		
	Prestakuntza, Titulazioak:		
Datu-Uztea:	INE, EUSTAT		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Oinarrizkoa.		

Fitxeroaren Izena:	SARRERA-IRTEERA DOKUMENTUEN ERREGISTROA		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Udaletxean sartzen eta irteten diren dokumentuen Erregistroari euskarri informatikoa ematea.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Udalarekin harremana duten pertsona fisiko naiz juridikoak.		
Datuen Etorkia:	Interesatuak berak edo bere ordezkari legalak emandakoak. Herri Administrazioak emandakoak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketa, Formularioak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	N.A.N./I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea (Postala, Elektronikoa):		
	Telefonoa:		
Datu-Uztea:	Beste Administrazioak.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Oinarrizkoa.		

Fitxeroaren Izena:	GIZARTE ZERBITZUAK		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Gizarte Zerbitzuko baliabideen tramitazio eta kudeaketa.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Udalerrian bizi diren guztiak, Elkarateak eta Gizarte Zerbitzuekin loturiko taldeak.		
Datuen Etorkia:	Interesatua bera, senitartekoak, bizilagunak, Udala eta gaiarekin zer ikusia duten profesionalak. (eskola, osasun zentruak, epaitegiak e.a.)		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketa, Formulario eta Txostenak		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Paperezkoa, Informatizkoa.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Word, Excel, Access, Papera		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Espediente Zenbk:		
	Izen Abizenak:		
	Helbidea:		
	Telefonoa:		
	NAN/IFZ:		
	Egoera Zibila:		
	Prestakuntza:		
	Banku etxe datuak:		
	Baliabide Ekonomikoak:		
	Ondasunak:		
	Lan Egoera:		
	Etxebizitza Eskubidearen Erregimena:		
	Epaiak eta Hitzarmenak:		

	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
Datu-Mota:	Tratamenduen Historiala:		
	Egoeraren Diagnostika:		
	Profesionalen Txostenak:		
	Gizarte Segurantzako zenbakia:		
Datu-Uztea:	Foru Aldundia, Osakidetza, Epaitegiak, Gizarte Segurantzza, Eusko Jaurlaritza.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala		
Segurtasun Neurrien Maila:	Gorena.		

Fitxeroaren Izena:	LIBURUTEGIAREN KUDEAKETA		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Liburutegiaren Kudeaketa.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Liburutegiaren Erabiltzaileak.		
Datuen Etorkia:	Interesatuak.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Galdeketak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Datu Basea		
	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
Datu Mota:	N.A.N./I.F.Z.		
	Izen-Abizenak:		
	Helbidea (Postala, Elektronikoa):		
	Telefonoa:		
Datu-Uztea:	Ez da aurrikusten.		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzateko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Oinarrizkoa.		

Fitxoreroaren Izena:	KUTXANET		
Fitxategiaren Arduraduna:	LIZARTZAKO UDALA		
Erabilera eta Helburuak:	Partikularrei Banku bidezko ordainketak.		
Eragindako Pertsona eta Kolektiboak:	Zergadunak, Hornitzaileak, Bankuak, Langileak, Laguntzen Onuradunak		
Datuen Etorkiak:	Aipatutako Partikularrak, SIGE.		
Datuak Jasotzeko Prozedura:	Listaduak.		
Lortzeko Erabiltzen den Euskarria:	Papera, Artxibo Informatikoak.		
Fitxategiaren Oinarrizko Egitura:	Kutxa-rena.		
Datu Mota:	Eremua	Sailkapena	Adierazpenak
	Izen-Abizenak:		
	Laguntza Ekonomikoak:		
	Laguntza Ekonomikoen Arrazoiak:		
	Kontu Korrontea:		
Datu-Uztea:	Kutxa-ra		
Sarbide, Zuzenketa, Ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzatzeko harrera zerbitzua edo unitatea:	Lizartzako Udala.		
Segurtasun Neurrien Maila:	Erdi Mailakoa.		

3.- TOLOSAKO GERONTOLOGI ZENTRUA

Alkateak, hitzar harturik, Tolosako Gerontologi Zentruari buruzko eskaera, informazio gehiago lortu bitartean, mahai gainean uztea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

4.- LURREN ZESIOAREN ONARPENA ETA ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

AITOR eta ANDER OLAETXEA GOIKOETXEA Jaunek, NAN 44170918 Q eta NAN 72469726 S zenbakidunek, Lizartzako, Kale Nagusia, 17 – 2.an helbideratuak, 2004ko Abuztuaren 27an eskaria aurkeztu dute; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, beren jabetzakoa den, ETXEBURUA izeneko lurratik:

- 1.- “Porción del terreno sembradío herbal llamado ETXEBURUA, que linda: Norte, Ermita Nuestra Señora del Sagrario; Sur, terrenos de Uberetabitarte; Este, camino carretil, y Oeste, terreno de Juan Olaetxea. Tiene quince áres.”

66,00 m²-ko lurra segregatu eta Lizartzako Udalari zesioa egin ahal izateko.

Lur horren deskripzio berria honela geldituko litzateke:

- 1.- “Porción del terreno sembradío herbal llamado ETXEBURUA, que linda: Norte Ermita Nuestra Señora del Sagrario; Sur, terrenos de Uberetabitarte; Este, terreno cedido al Ayuntamiento de Lizartza y Oeste, terreno de Juan Olaetxea. Tiene 14 áreas 34 ca.”

Udalari ematen zaion lurraren deskripzioa, hau izango da:

- 1.- Espaloietarako erabiliko den, 66 m²-ko azalera duen lurra. Mugak: Ifarratik: Sagrarioko Ermita; Hegoaldetik: Uberetabitarteko lurrak; Ekialdetik: Herri

Bidea eta Mendebaldetik: Aitor eta Ander Olaetxea Jaunen jabetzakoa den ETXEBURUA lurrarekin.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

Guzti hori kontutan harturik, udalari uzten zaion zatia onartu eta, eta hori gauzatzeko, Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola Jaunari, ahalmen osoak ematea, aho batez, erabaki da.

5.- UR ZERBITZUA, ZABOR BILKETA ETA IBILGAILUEN ZERGAREN TASA ALDAKETARAKO PROPOSAMENA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2002 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen, baina bi azken urte hauetan ez da inolako igoerarik burutu.

2005 urteko Udal Ur Horniduraren kostuak aztertuz gero, defizitarioa dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Udal Ur Hornidura Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

UR ERREZIBOAK

ETXEAK

Hiruhilabetean 36 m³ x 0,20 €/m³
36 m³tik gora – 0,30 €/m³

TABERNAK, DENDA eta INDUSTRIAK

Hiruhilabetean 45 m³ x 0,30 €/m³
45 m³tik gora – 0,40 €/m³

INFRAESTRUKTURA KANONA

Hiruhilabetean 6,00 € erreziboko

KONTAGAILUEN MANTENIMENDUA

Hiruhilabetean 1,30 € erreziboko

SAREARI LOTUNEA

Lotune Eskubidea: 50,00 €

Berlotune Eskubidea: 100,00 €

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Udal Ur Hornidura zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu horrek defizitarioak izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	230 kontagailu x 36 m ³ x 0,20 x 4	6.624,00
Industriak	18 kontagailu x 45 x 0,30 x 4	972,00
Infraestruktura Kanona	248 kontagailu x 6,00 x 4	5.952,00

Kontagailuen Kanona	248 kontagailu x 1,30 x 4	1.289,60
SARRERAK GUZTIRA		14.837,60
GASTUEN AURRIKUSPENA		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa - 26684 m3 x 0,40 €/m3	10.673,60
	Infraestruktura Kanona	5.500,00
	Kalitate Kontrola	444,00
	Bestelako Mantenimenduak	1.500,00
GASTUAK GUZTIRA		18.117,60
DIFERENTZIA		- 3.280,00

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZABORRAK

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2002 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen, baina bi azken urte hauetan, ez da inolako igoerarik burutu.

2004 urteko Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Etxebizitzak habitatuak eta hutsak- Hiruhilabetean 12,00,- €
 Industriak - Hiruhilabetean 20,00, -€

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu hori defizitariora izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

PROPOSAMENA	2005	SARRERAK
Zaborrak – Etxeak – 288 Errezibo	15,00 €/hiruhilabetean	17.280,00
Zaborrak – Industr – 11 Errezibo	25,00 €/hiruhilabetean	1.100,00
GUZTIRA		18.380,00

AURRIKUSPENAK	URTEA	SARRERAK	IRTEERAK	DIFERENTZIA
ZABORRAK	2005	18.380,00		
GMSM Zabor Bilketa			11.307,96	
Zaborteigira Zaborrak			268,84	
Tolosaldeko Mankomunitatea			10.389,49	
GUZTIRA		18.380,00	21.966,29	- 3.586,29

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

IBILGAILUEN ZERGA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik kobratu behar ziren tasak.

2002 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen, baina bi azken urte hauetan, ez da inolako igoerarik burutu.

Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikulua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak berriak ezarri ditu, 2005 urtetik aurrera aplikatu behar direnak.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak honela geldituko lirateke:

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2004 URTEA	3-2,6% IPC	2005 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiango	25,92	1,48	27,40
	9tik11,99 ZF. bitarte	51,85	2,95	54,80
	12tik 13,99 ZF. bitarte	86,37	4,93	91,30
	14tik 15,99 ZK. Bitarte	120,98	6,87	127,85
	16tik 19,99 ZF. bitarte	155,69	9,31	165,00
	20 ZF. gorakoak	190,10	10,81	200,90
AUTOBUSAK	21 eserlekutik beherakoak	119,77	6,81	126,60
	21etik 50 bitartekoak	170,57	9,68	180,25
	50etik gorakoak	213,22	12,11	225,35
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	60,79	3,46	64,25
	1000tik 2999 bitartekoak	119,77	6,81	126,60
	2999tik 9999 bitartekoak	170,57	9,68	180,25
	9999tik gorakoak	213,22	12,11	225,35
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	25,39	1,45	26,85
	16tik 25 bitartekoak	39,94	2,26	42,20
	25tik gorakoak	119,77	6,81	126,60
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	25,39	1,45	26,85
	1000tik 2999 bitartekoak	39,94	2,26	42,20
	2999tik gorakoak	119,77	6,81	126,60
ZIKLOMOTOREAK		6,35	0,35	6,70
MOTOZIKLETAK	125 c.c. bitartekoak	6,35	0,35	6,70
	125tik 250 bitartekoak	10,89	0,61	11,50
	250tik 500 bitartekoak	21,79	1,26	23,05
	500tik 1000 bitartekoak	43,54	2,51	46,05
	1000tik gorakoak	87,08	4,97	92,05

KONTZEPTUA	2003-IPC 3%	2004-IPC 2,6%	2005
Ibilgailuen Zerga	33.043,26	32.805,27	34.667,96

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

OBRATAKO BAIMENAK

TOMAS ZUBELDIA AIERBE – Zkia: 346/2004

JOSE ORBEGOZO AROZENA – Zkia: 348/2004

M^a CRUZ OLAETXEA KARRERA – Zkia: 392/2004

FRANCISCO PARDIÑAS GOMEZ – Zkia: 394/2004

IMA ZUBELDIA LULOAGA – Zkia: 398/2004

2004ko 2. HIRUHILABETEKO ZABORRA – Zkia: 468/2004

2004ko 2. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 303 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 2.855,13 €.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2004 urteko 2. hiruhilabeteko Zaborraren zergaren errolda onartzea.

2004ko 2. HIRUHILABETEKO URA – Zkia: 469/2004

2004ko 2. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 251 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 3.912,01 €.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2004 urteko 2. hiruhilabeteko Uraren zergaren errolda onartzea.

EUSKARA IKASTAROAK – Zkia: 477/2004

IKUSIRIK.- 2003ko Abenduaren 23an egindako Bilkura Nagusian, Euskara Ikastaroetan parte hartzen zuten ikasle bakoitzari, ikastaroko matrikularen 75%ko dirulaguntza ematea onartu zen, ikastaroaren amaieran, asistentzi ziurtagiria aurkeztu behar zutelarik.

KONTUTAN HARTUAZ.- Hauek izan direla ikastaroa amaitu eta justifikatu duten ikasleak:

MIKEL HURTADO MARTINEZ
IGOR ARIZA AGUIAR
ELENA USARBARRENA MURGIALDAI
ISABEL ARRONDO GARCIA
BEGOÑA ARRONDO GARCIA
ANA JIMENEZ GOLINA
JUAN MANUEL PIRIS RIOS

KONTUTAN HARTUAZ.- Ikasleko matrikularen kostua: 295,75 €-tako izan dela. Guztira: 2.070,25 €

Guzti hori kontutan hartuaz, ERABAKI DUT:

Ikastaro amaiera justifikatu duen ikasle bakoitzari, 221,82 €-tako dirulaguntza ordaintzea. Guztira 1.552,74 €

GIZA LARRIETARAKO LAGUNTZA – Zkia: 358/2004

Eskaria kontuan hartuz eta udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, honako hau ERABAKI DUT:

M^a Cruz Otxotorena Huarte Andreari, Gizarte Beharrian Larrialdietako Laguntza EMATEA, 1.142,05 €-tako diru kopuruz.

PEDRO URKIZAR LARRARTE

IKUSIRIK.- Apirilaren 22an Pedro URKIZAR LARRARTE jaunak Udal honetan aurkeztutako idazkia; horren bidez Bereizketa egiteko Lizentzia eskatu zuen.

JAKINIK.- Eginiko eskabidean Beortegi baserriaren eta hari lotutako ondasunen jabe dela, eta aipatutako finkatik baserria eta hari lotutako ondasun batzuk bereizteko (zehazkiago “Atariko-Gastañadia” eta “Borda-Ondoko-Soroa” izeneko saila), banantzeko baimena eskatzen duela, gero saldu ahal izateko. Guztira 21.329 m²-ko azalera da banandu nahi duena, baina eskabidean ez da finka nagusian geratuko litzatekeen azalera zehazten.

JAKINIK.- 2004ko uztailaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean –136 zenbakian- Lizartzako Udaltzako 2004ko uztailaren 1ean hartutako erabakia argitara eman dela. Aipatu erabakiaren bidez jendaurrean jarri da Lizartzako Udaleko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Aurrerapen agiria eta, ondorioz, Planeamendu berriaren eraginpeko eremuan lursailak partzelatzeko, bertan eraikitze edo eraikuntzak eraisteko lizentzien emakida eten da.

JAKINIK.- Lizentzien etetea adostu ondoren, eskumena duen Udal organoak emakida-prozesua etetea eta erabakia hartu baino lehen lizentziak eskatu dituztenei erabaki hori jakinarazteko beharra duela.

AINTZAT HARTURIK.- Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko (abuztuaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onetsia) 117. artikulutik 122.era koetan jasotakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22,1 q) artikuluan jasotakoa.

HAU ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Pedro Urkizar Larrarte Jaunak eskatutako bereizketa egiteko lizentzia emateko prozedura etetea.

Bigarrena.- Agindu hau interesdunari jakinaraztea eta berari aditzera ematea beronen aurka berraztertze errekurtsoa jar daitekela, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazio-Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean.

LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUETAKO U-1 INDUSTRI EREMUAREN HIRITARTZE PROIEKTUA

URBA UTEk eskatuta, ASMATU S.L.k idatzitako, Lizartzako Laguntzazko Arauetako, U-1 Industri Eremuaren Hiritartze Proiektua.

Kontutan harturik, azaltzen diren obrak eta batzutzen diren agiriak, Laguntzazko Arauen aurreikuspeneta egokitzen direla, eta txosten tekniko eta juridikoa aldekoak direla, erabaki dut:

- 1.- Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Hiritartze Proiektuari lehen onarpena ematea.
- 2.- Jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Egunero Egunkarian iragarkia argitaratuaz, alegazioak jarri ahal izateko.
- 3.- Alegaziorik egoten ez bada, behin betirako onartutzat hartuko da.

MARGA OTEGI SEGUROLA – EXZEDENTZI ESKAKIZUNA

MARGA OTEGI SEGUROLA, Lizartzako Udalean, Gizarte Laguntzaile postua betetzen duenak, Arlo Publikoan Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko Eszendentzia eskatu du.

Idazkariak, aplikagarri den legeria eta zerbitzuaren egokitasunari buruz txostena luzatu du.

Guzti hori kontutan hartuta, ERABAKI DUT:

- 1.- Euskal Herri-Administrazioetako Funtzionarioen Administrazio-Egoerei buruzko 339/2001 Dekretuaren 7. artikuluan aurrikusten den “Arlo Publikoan Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko Eszedentzia”ren arabera, 2004ko Abuztuaren 6tik kontatzen hasita, ESZEDENTZIA LUZATZEA, eszedentzia eskatzeko arrazoi izan den zerbitzu-harremana dirauen bitartean.
- 2.- MARGA OTEGI SEGUROLA funtzionarioari ez zaio lanpostua gordeko eta egoera horretan emandako denbora ez zaio kontuan hartuko administrazio-karrerako, hirutekoetarako eta eskubide pasiboetarako. Ezta ere, ez du inolako ordainsaririk jasoko egoera horretan dagoen bitartean.
- 3.- Udaleko Langileen Erregistroari, dekretuaren berri ematea, dagozkion efektuetarako.

GIZARTE LAGUNTZAILEAREN KONTRATAZIO BERRIA

2004ko Abuztuaren 9ko Dekretuaren bitartez, MARGA OTEGI SEGUROLA, Lizartzako Udaleko Gizarte Laguntzaileari, Arlo Publikoan Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko Eszedentzia onartu zaio, berau 2004ko Abuztuaren 6tik indarrean sartu delarik.

Gizarte Laguntzailearen lanpostua hutsik geldituenez, hainbat gestio burutu dira, zerbitzuaren beharragatik, lehenbaitlehen lanpostu hori bete ahal izateko.

Gestio hoiengatik, arabera, bi pertsona izan dira, interesatuta agertu direnak:

- .- M^a LURDES UZKUDUN ELOSEGI
- .- LIERNI QUINTANILLA ZABALA

Bi pertsona hauen curriculum-ak aztertu ondoren, garbi azaltzen da, LIERNI QUINTANILLA ZABALA Andreak, M^a Lurdes Uzkudun Elozegi Andreak baino, lan-esperientzia gehiago duela.

Guzti hori kontutan hartuta, ERABAKI DUT:

- 1.- Lizartzako Udaleko Gizarte Laguntzaile posturako, LIERNI QUINTANILLA ZABALA Anderea izendatzea, 2004ko Abuztuaren 16an lanean hasi behar duelarik.
- 2.- Kontratazio honen iraupena, kontratuaren arrazoia izan den: Funtzionaria den Gizarte Laguntzailea, Arlo Publikoan Zerbitzuak Betetzeko Borondatezko Eszedentzian dirauen edo eta, lanpostua berriro funtzionari batekin betetzen den bitartekoa izango da.
- 3.- Udaleko Langileen Erregistroari, dekretuaren berri ematea, dagozkion efektuetarako.

BILKURA NAGUSIRAKO DEIA

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

1.- IRAILAREN 14an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Aurreko Bilkurako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- LOPD.
- 3.- Tolosako Gerontologi Zentrua.
- 4.- Lurren Zesioaren Onarpena eta Alkateari Ahalmenak ematea.
- 5.- Ur Zerbitzua, Zabor Bilketa eta Ibilgailuen Zergaren tasa aldaketarako proposamena.

6.- Alkatetzaren Dekretuak.

7.- Bestelakoak.

2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

7.- BESTELAKOAK

Ez dago ezer.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko zortzi t'erdia direnean.